



LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOETARAKO SARBIDEA

ONARRIZKO INFORMAZIOAK

Lanbide Heziketako Heziketa-Zikloetarako sarrera arautzen duen 2016/02/11ko AGINDUAK xedatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Heziketa-Zikloetara sartzeko probak egiteko deialdia egingo duela gutxienez urtean behin, eskatutako titulazio akademikorik ez izateagatik heziketa-ziklo horietara zuzenean sartu ezin direnei aukera bat emateko.

Goi-Mailako Heziketa-Zikloetako sarrera-proben helburua da egiaztatzea izangaiak baduela Batxilergoko helburuek eskatzen duten behar beste heldutasun eta egin nahi duen ziklorako beharko dituen berariazko ezagutzak ere badituela.

Hezkuntza Administrazioak Heziketa-Ziklo eta ikasturte bakoitzean guztira eskaintzen diren plazen ehuneko jakin bat gorde dezake, sarrera-probak gainditu dituzten ikasleentzat.

Probak euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daitezke, eta ikasleek hautatuko dute zer hizkuntzatan egin nahi duten.

Heziketa-Zikloetara sartzeko sarrera-proba gainditzen bada, Estatuaren lurralde osoan izango du balioa.

Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzak, Lanbide-Heziketako Erdi-Mailako eta Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko proben deialdia egiten duen ebazpenaren bidez, proba horietarako onarpen-prozedurak aplikatu ditzake, eskaria eskaintza baino handiagoa bada.

Onarpen-prozedura horretan, hemen adierazten den lehentasun-ordenaren arabera, balioespen-irizpide hauek erabiliko dira:

1. Sarrera-probaren atalen bat gaindituta edukitzea EAEn, eta nota hori gordetzen den aldiaren barruan egotea.
2. Bizitokia EAEn izatea.
3. Deialdian zehazten den berdinketa-hauste irizpidea.

GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOETARA SARBIDEKO PROBAREN EGITURA

Goi-Mailako Heziketa-Zikloetako sarbideko proben helburua da egiaztatzea izangaiak baduela Batxilergoko helburuek eskatzen duten behar beste heldutasun eta egin nahi duen ziklorako beharko dituen berariazko ezagutzak ere badituela.

Probak bi zati ditu: Komuna eta Berariazkoa. Zenbaki bidez (0-10) emango da atal bakoitzaren kalifikazioa. Probaren amaierako nota kalkulatzeko atal bakoitzean, gutxienez, lau puntu lortu behar dira, eta, kasu horretan, atal bakoitzean ateratako puntuazioaren batez besteko aritmetikoa egingo da (salbuetsita dauden atalak ez dira kalkulua egiteko kontuan hartuko). Proba osorik gainditzen ez bada, gainditutako atal(ar)en kalifikazioa hurrengo bi deialdietarako gordeko da, eta horren berri ematen duen egiaztapen-agiria egingo da

Arlo Komunak erreferentziazko irakasgai hauek ditu:

- Matematika.
- Atzerriko hizkuntza (Frantsesa edo Ingelesa hauta daitezke izena ematen den unean).
- Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura.

Berariazko Arloan, A, B edo C zer aukera (CEPA BILBAO HHIn C aukera prestatzen laguntzen dizuegu) hartzen den, egindako aukeraren arabera irakasgaiak izango ditu; probarako izena ematen denean egiten da aukeraketa. Hiru aukera horietako bakoitzak lanbide-familia jakin bateko Goi-Mailako Heziketa-Zikloak egiteko aukera ematen du.

Berariazko Arloko Azterketako irakasgaiari dagokienez, bi aukeratu behar dira hauen artean, egin den aukeraren arabera.

C aukera hautatzean egin daitezken Heziketa-Zikloak **Lanbide Arlo** hauen artekoak dira:

- Kimika.
- Gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Itsas arrantza (Akuikultura Zikloa bakarrik).
- Nekazaritza.
- Elikagaien industria.
- Osasuna.
- Irudi pertsonala.
- Segurtasuna eta ingurumena.

C aukera hautatzean Berariazko Arloko Azterketako **Irakasgaiari** dagokienez, hauen artekoak bi dira:

- Kimika.
- Lurraren zientziak eta ingurumen-zientziak.
- Biologia.

(CEPA BILBAO HHIn Ingurumenaren eta Lurraren Zientziak eta Biologia)